

ITALIA

«Beste Europa hori»

Emigranteak dira «beste Europa hori». Egundaino gertatu ez dena agitu* da azken urteotan Europan: historian ez du Europak horrelako uholderik edo giza «inbasiarik» ezagutu. Europaren batasuna egitean, emigranteak dira noski arazorik nagusienetako bat.

6.000.000 lagun ditu Italiak munduan barrena kanporatuak, lan bila. Gehienak Europan: Frantzia, Suitza eta Alemanian batez ere, azken hogeita bost urteotan kanporatuak. 350.000 milioi lira sartu zituzten langile horiek Italiara 1973.ean. Orain, berriz, lana Europan ere eskatu da, eta langile asko etxerako bidetan jarri da. Problema ikaragarriak, etxeratze honek Italiari (eta Mediterraneo aldeko beste herrialdeei ere bai) dakartzkionak. Halaber, harrez joandako langileak, halaber, etxeratzeko ari dira. Eta kanporatze oso gogoan izan ez zituzten Estatuak, etxeratzeko diren honetan oso kezkatzen hasiak dira.

Joan den otsaliaren* 24etik 30era antolatu zuen Italiako Gobernuak lehen aldiz **Emigrazioaren Konferentzia Nazionala**. Kanporatuen ordezkari bezala 300 bat lagun etorri dira. Horietaz gainera, beste 300 bat politikari eta sindikaririk hartu dute parte. Azkenik, atzeritik etorri diren ikusle eta ordezkariak kontuan edukiz, mila bat lagun izan dira konferentzian parte hartu dutenak.

Hitz ugari isuri da. Europako Ekonomi Elkartea salatu da. Protesta latzak eta mingarriak entzun dira atzeriratuaren aldetik. Agintzari* onak ere bai Italiako gobernariaren aldetik. Baina Europaren larrialdi honetan, atzeriraturiko langileak larrien. Ba dira zazpi bat urte, EEEen (Europako Ekonomi Elkartean), atzeratuta dauden eta pobreen diren eskualdeei* laguntza berezia emateko, diru kutxa bat sortzea asmotan dagoela. Baina oso motel gelditu dira asmo horik.*

Sarritan ekonomi mailan bakarrik neurtu ohi da emigrazioaren arazoa. Estatu batek, kontuak ateratzean, hona hemen zeintzu alderdi ikusten dituen: zenbat eman behar izan duen, atzeriratu diren langile horien heztekotik;* zenbat diru uzten duten emigranteek, lana ematen dien herrialdean; zenbat dibisa dakarren nork bere herrialdera. Salmentarako gaia bezala hartzen da orduan langilea eta emigrantea.

Emigrazioaren arazoa, ordea, ez da ekonomi aldetik neurtzekoa bakarrik. Giza eta gizarte alderdiak, politikazko eta kulturazko alderdiak dira, emigrazioak daramatzan* alderdi ilunenak. Erroman bildu den konferentziak, alderdi hauetatik batez ere aztertu du emigrazioaren arazoa. **(Patxi Kortabarria)**

KURDISTAN

Herri bat izan nahi zuen

Azkeneko berriek diotenez, erresistentzia harmatua bukatuta da Kurdistanen. Beharbada, lerro hau* argitaratzen direnoko, zeharo deseginik izango da.

Barzani jeneralak aitortu duenez, «amaitua da gerla». Zergatik? Erantzuna ere berak eman du: «Bakarrik gaudela, adiskiderik gabe». Izan ere, azkeneko urteotan Iranen laguntza izan badu ere, Alger-en martxoaren 6an Iraneko xahak eta Iraqeko Sadam Husseinek egin* hitzarmenaren* ondoren, euskarri* konkreturik gabe gelditu dira kurdu burrukalariak. Iraq eta Iran, elkarren arteko lur

jabego kontuagatik, haserre nola zebiltzan, iraniarrek irakeko kurduak laguntzen zituzten, harmak eta dirua emanaz. Aurrerantzean ez.

Iparaldeko mendietan kokaturik,* ba da hamabost urte, kurduak beren burujabegoaren alde burrukan ari direla. Harmak eskuetan, 40.000 gizon, 76 urtetako Barzani buruzagiaren atzetik.

Gizon horiek aberri bat, nazio bat, Estatu bat egin nahi izan dute. Berena, kurduena: 10 milioi bizilagun, 500.000 kilometro koadratu. Baina kurduak, beren lurralde hori Itsas Beltzaren eta Persiar Golkoaren artean egotearen zoritxarra besterik ez dute, hots, bost nazioaren artean sakabanaturik daudela (Sobietar Batasuna, Turkia, Iran, Iraq eta Syria). Gaur egun burrukan ari diren bakarrak, Iraqekoak dira.

Bost nazioaren artean egoteak ez dio on handirik ekarri Kurdistanari. Muga gehiegi eta interes desberdin sobera,* gauza onerako.

Gero eta bakarrago geldituz joan dira kurduak. Beti atakatuak eta persegituak, eta gero eta bakarrago. Mar-



txa txarra. 1972.eko apirilean, Sobietar Batasunak eta Iraqek hitzarmen bat egin zuten. Euskarri politikoa galtzen zuten horrela kurduak. 1974.eko udan, Turkiak eta Iraqek beste hitzarmen bat egin zuten. Turkiako muga hestearekin,* irtenbide bat galtzen dute kurduak. 1975.eko martxoan beste hitzarmen bat egiten dute Iranek eta Iraqek. Harma gabe gelditzen dira aurrerantzean kurduak. Beti herri tipi hau galtzaile.

Munduaren eskualde* honetan, «realpolitik» ezaguna nagusitu da. Horrela, bi nazioak ongi konpontzen direlarik, Iraq sozialistan sobietar eragina* txapeldun egingo da, eta Iranen amerikarren influentzia gutitu egingen. Hori lortzeko, aski izan da «mugako joan-etorri subertsiboak» geleraztea.

Iranen laguntzarik gabe, gaitz da burruka harmatua aurrera eramatea. Harma bidez ez dela hau konponduko pentsatzen dute Kurdu Mugimenduko moderatuek. (Moderatu hauen ordua etorri ote da orain?). Iraqek ere berdintsu pentsatzen zuen. Eta, hain zuzen, autonomi gisako* zerbaiten eskaintza ere eginga zuen. (Egia esan, ez Turkiak ez Iranek eskaintzen ez dutena). Autonomia bai, baina aberastasunak kenduz. Beren lurraldean —Kirkuk eta Mosul-en— dagoen petrolioaren jabegoa eskatzen zuten kurduak. Probokaziotzat eta ezin onhartuzkotzat jo zen Barzaniaren eskari hori Bagdad-en. (Aberas-